

## **Bediako Udala**

### **Covid-19aren bilakaeraren ondorioz kaltetutako pertsonen dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak.**

2020ko uztailaren 13ko ez ohiko Udal Osoan, COVID-19aren hedapena dela eta ostalaritza establezimendu, autonomo eta enpresa txikietara zuzendutako dirulaguntzak arautzen dituen oinarriak onartu egin dira, baita laguntza espezifiko bat ere, COVID-19ren bilakaeraren ondoriozko egoerek eragindako lana eta familia bateragarri egitea zailtzen zaien familiei laguntzeko eta horietan sor daitezkeen behar ekonomikoak, COVID-19ren bilakaeraren ondoriozko egoerek eraginda.

Jendaurrean jartzen da guztiok jakinaren gainean egon zaitezten ondoren aipatutako oinarrien testu osoa argitaratzen delarik.

Eskabideak aurkezteko:

- Bediako Erregistro telematiko bidez.
- Bediako Udalera zuzendutako posta bidez.
- Aurkezteko epea:
  - Bizkaiko Aldizkari Ofizialan argitaratzen denetik hamabost lanegunetako epe barruan.

Bedian, 2020ko uztailaren 13an

Alkatea,

Aitor Sorriketa Larrea

## **COVID-19AREN HEDAPENA DELA ETA OSTALARITZA ESTABLEZIMENDU, AUTONOMO, ENPRESA TXIKIETARA ETA FAMILIETARA ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN OINARRIAK**

Martxoak 14ko 2020/462 Errege Dekretu bidez, COVID-19ek eragindako osasun krisiaren kudeaketarako alarma egoera aldarrikatzen da.

Lurralde osoan eragina duen eta bere betetzea derrigorrezkoa den Aldarrikapen honen ondorioz, hezkuntza zentro, eguneko zentro, merkataritza zentroak eta beste establezimendu batzuk eta orokorrean, ostalaritza establezimendu guztien itxiera eragiten du eta herritar guztien konfinamendua, baita familia-antolaketan eragin berezia izan duten neurriak hartzera eraman duten beste batzuk ere, hala nola ikastetxeak ixtea eta Udalekus etetea.

Egoera honek establezimendu eta autonomo guztiengan izugarritzko galerak eragiten ditu, beraien jardueretan egin behar baitituzte edo bestela beraien jarduera murriztuta ikusten dutenak, eta bestalde, ohiko lan-jardueraren eta seme-alaba adingabeen arreta- eta zaintza-beharren artean dagoen desoreka.

Galera ekonomiko hauek zelan hala arintzeko asmotan, eta horretarako aurrekontu kontsignazioa izanik 2020ko aurrekontuaren 231.480,02 partidari, Euskal Herriko Toki Erakundearen 2/2016 Legean ezarritakoarekin bat eta TAOALaren 25.1 artikuluan ezarritakoa jarraituz, helbide fiskala eta jarduera Bedian duten ostalaritza establezimendu, autonomo eta enpresa txikieiei zuzendutako dirulaguntzaz gain baita laguntza espezifiko bat ere, COVID-19ren bilakaeraren ondoriozko egoerek eragindako lana eta familia bateragarri egitea zailtzen zaien familiei laguntzeko eta horietan sor daitezkeen behar ekonomikoak, COVID-19ren bilakaeraren ondoriozko egoerek eraginda, larrialdizko deialdia onartzen da.

Aipatutako dirulaguntzak jarduera bat martxan duten pertsona fisiko eta juridikoei zuzenduta daude. Egoera larrian dauden banakako eta familien beharrezan

Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen bitartez tramitatu beharko dira. Hala ere, salbuespen gisa, eta Mankomunitatearen laguntza-funtsek pertsona ahulen oinarrizko premiak estaltzen ez dituzten kasuetarako, Bediako Udalak laguntza puntualak eman ahal izango ditu, oinarrizko gizarte-zerbitzuek horri buruzko txostena egin ondoren, horiek estaltzeko.

## **1. Objektua eta lagundutako epea**

1.1 Dirulaguntza deialdi honen helburua, Koronavirusaren hedapena dela eta enpresa txikiak eta ostalaritza establezimenduetan eragindako egoerak arintzea da. Aipatutako jarduera eta establezimenduek beraien jarduera eta egoitza fiskala Bedian izan beharko dute eta gainera osasun larrialdiaren aldarrikapenak eragindakoak izan.

Helburu horretarako ez aldikako dirulagutzak emango dira.

Salbuespen bezala, Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen kudeatzen dituen Gizarte larrialdiko dirulagutzak heltzen ez diren kasuetarako eta bereziki kalteberak diren herriko familientzako, Bediako Udalak unean uneko dirulagutzak eman ahal izango ditu, beti ere aurretiazko oinarrizko gizarte zerbitzuen txostenean oinarrituta, oinarrizko betebeharrak asetzeko.

1.2 Laguntza espezifikoko bat, COVID-19ren bilakaeraren ondoriozko egoerek eragindako lana eta familia bateragarri egitea zailtzen zaien familiei laguntzeko.

1.3 Horrez gain, laguntza eman nahi zaie Covid-19ko krisiaren ondorioz langabezian dauden pertsoneri, bai enpresan ABEEE bat aplikatzeagatik, bai behin betiko kaleratzeagatik, alarma-egoera indarrean sartzeak ekarri dituen zaltasun ekonomikoari aurre egin ahal izan diezaieten.

## **2. Aurrekontu partida**

2.1 2020ko aurrekontuaren 231.480.02 aurrekontu partidan 32.000 eurotako kontsignazioa bideratuko da dirulaguntza horiek ordaintzeko.

Familiei zuzendutako dirulaguntzen kasuan, 6.000 eurotako kontsignazioa bideratuko da aurrekontu partida berdinean.

2.2 Partida beraren kargura 6.000,00 euroko funts bat ezarri da familia adiskidetzeko bigarren modalitaterako.

### 3. Baldintzak

3.1 Dirulaguntza hauek lortzeko eskubidea izango dute, 2020ko martxoak 14ko osasun alertaren ondorioz beraien *jarduera eten egin behar izan duten, autonomo, gehienez 5 langile dituzten enpresak eta autonomo guztiak* beraien helbide fiskala Bedian izanik, jarduera ere Bedian egiten dutenak.

Era berean, osasun alertak jardueraren etenaldia eragin ez arren, beraien aktibitatea murriztuta ikusi dutenak eta horren ondorioz beraien diru sarreratan eta aurreko hilabetearekin alderatuz, %50aren jaitsiera izan dutenak.

Aipatutako galera horiek justifikatzeko, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute alerta aurreko hilabeteetan lortutako diru sarrerak eta beraien jatorria zehazten duen memoria eta ondorioz izandako diru galerak edo lortu gabeko diru sarreren deskribatzen duen dokumentuak aurkeztu beharko dira.

3.2 *Familiantzako laguntza espezifikoa*ri dagokionez, beharrezkoa izango da:

- Pertsona fisiko eskatzailea Bediako udalerrian erroldatuta egotea 2020ko apirilaren 1a baino lehen.

- Onuradunak pertsona fisikoak izango dira beti, eta, oro har ezarritako irizpidez gain, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Eskatzaileek 12 urtetik beherako pertsonak izan behar dituzte beren ardurapean, eta lan-egoera aktiboan egon behar dute.

2. Lan-egoera:

Familia-unitatea guraso *bakarrekoa* bada, eskatzaileak besteren konturako enplegatua izan behar du, eta zerbitzuak modalitate presentzialean edo erdipresentzialean eman behar ditu, Azken kasu horretan, lanaldi osoko kontratua izanik, lanaldi presentzialaren zatia gutxienez lanaldi erdikoa izango da. Lan-kontratua lanaldi erdikoa bada, presentziala izango da beti.

*Familia-unitate* berean adingabearen zaintza eta jagoletza duten bi pertsona bizi badira, horietako batek, gutxienez, lanaldi osoan eman behar ditu zerbitzuak, eta besteak lanaldi erdian edo hortik gora, hori guztia eskatutako enpresa-ziurtagirian egiaztatuko da. Gurasoetako bat langile autonomoa bada, besteak lanaldi osoko kontratua izan beharko du.

3. Zaintzak egiteko pertsona bat edo zerbitzua ematen duen enpresa bat kontratatzeak gutxienez 49 egun naturaleko iraupena izan beharko du 2020ko apirilaren 1etik irailaren 30era bitartean.

Laguntza horiek eskatzen dituztenek egunean izan beharko dituzte Bediako Udalarekin dituzten zerga-betebeharrak. Era berean, egunean izan behar dituzte zerga-betebeharrak edo Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko diru-laguntzak ematetik eratorritakoak, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeretako batean ere ez egotea.

3.3 Laguntza hauek jaso ahalko dituzte 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 30era bitartean lan-kontratu bat izatetik langabezia-egoeran izatera igaro direnek, langabezia izateko arrazoia COVID-19a denean, izan enpresan ABEEE bat aplikatzeagatik edo behin betiko kaleratze bat ematzeagatik. Horrez gain, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Bedian erroldatuta egotea eta bertan izatea ohiko etxebizitza (2020ko martxoaren 14an bertan egon behar ziren erroldatuta).
- Eskatzailea langabezia-egoeran edo Aldi Baterako Enplegu Erregulazio Espediente (ABEEE) batean egotea edo egon izana, martxoaren 14tik aurrera, COVID-19aren eraginez.
- Martxoaren 14a baino lehen lanaldi oso edo partzialeko lan-kontratu bat izatea.
- Hileroko diru-sarrerak, langabezia-saria barne, pertsonako 950 euro garbi baino gutxiagoak izatea, edo 1900 euro garbi baino txikiagoak, bizikidetz-unitateko.

#### **4. Aurkeztu beharrezko agiriak eta epeak**

4.1 Eskabide eredu deialdi honi atxikituta agertzen den agiria izango da eta erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen den biharamunetik zazpi lanegunetako epe barruan aurkeztu beharko da.

Eskabide orriarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Helbide fiskala Bedian duela egiaztatzen duen Jarduera Ekonomikoen Zergan alta historikoa.
- 2020ko urtarrila eta otsailean autonomo kuota ordaindutako ziurtagiria.
- Eranskinean agertzen den zinpeko aitortpena.

4.2. Eskabide-ereduarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Familia-erroldatzearen ziurtagiria.
- Enpresaren ziurtagiria, lan-egoera aktiboa eta lanaldiaren iraupena egiaztatzen dituen (lanaldi osoa edo partziala).
- Zerbitzuak emateko kontratuaren eta Gizarte Segurantzaren altaren fotokopia.
- Bediako Udalarekin dituen zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean ez egotearen ziurtagiria.

4.3 Eskaberaren unean:

- Eskatzaileen NANaren edo AIZren fotokopia.
- ABEEren justifikazio-dokumentua.
- Aldi baterako kontratua berritu ezean 3. Artikuluan aipatutako epean, berritu ez denaren oharra.
- SEPE erakundearen ziurtagiria, jasotzen diren prestazioei buruzkoa edo ezezkoa.
- LANBIDE erakundearen ziurtagiria, jasotzen diren prestazioei buruzkoa edo ezezkoa.
- Bizikidetzaren unitatean laguntza-eskaeran adierazitako hilabeteetan jasotzen diren bestelako diru-sarreraren jakinarazpena.
- Eskaera beteta, oinarri arautzaile hauekin batera atxikitako ereduari jarraikiz.

## **5. Zenbatekoa**

5.1 1.000 eurotako dirulaguntza bakarra emango da merkatari, ostalaritza establezimendu edo autonomo bakoitzari enpresa horretan lan egiten duten pertsonak kontuan izan gabe.

Pertsona juridiko edota enpresa batek jarduera bat baino gehiago egingo balitu, enpresa/establezimendu bakar bezala kontsideratuko dira eta beraz dirulaguntza bakar bat izateko eskubidea izango du.

5.2 Eskatzaile bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 500,00 eurokoa izango da, eta pertsona fisiko eskatzaileen artean banatuko da, baldin eta oinarri eta deialdi hauetako baldintza guztiak betetzen badituzte, eskabidea eta dokumentazioa behar bezala aurkezten badituzte eta ezarritako irizpideak betetzen badituzte, Betiere, laguntza-modalitate horri esleitutako funtsak agortu arte; nolana ere, funts horiek handitu ahal izango dira, dagokion aurrekontu-aldaketaren bidez.

5.3 Hauek dira laguntzen zenbatekoak:

- Langabezia-saria eta onuradun bakoitzak jasotzen dituen gainerako diru-sarrerak osatuko dira, gehienez ere hilean 950 eurora iritsi arte, lanaldi osoa izatetik langabeziara igaro diren eskatzaileei emango zaie. Lanaldia murriztua balitz, zenbatekoa hainbanatu egingo da.
- Bizikidetzaren unitate bakoitzeko 2 pertsonak jaso ahalko dute laguntza, gehienez ere.

## **6. Instrukzioa eta proposamena**

Bediako zerbitzu juridiko eta teknikoei dagozkien eskabide eta dokumentu guztien azterketa eta behin aztertu ondoren ebazpen proposamena luzatzea.

Ebazteko ahalmendun organoa Alkatetza izango da.

Ebazpen hori banaka jakinaraziko zaie aurkeztutako guztiei Izapidetza Administratibo bateratuaren 39/2015 Legearen 41.1 legean ezarritakoarekin bat.

## **7. Bateragarritasuna**

Deitutako dirulaguntza hauek beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batek emandako dirulaguntzekin bateragarria izango da.

### **AZKEN EBAZPENA**

Ostalaritza, autonomo eta merkataritzari zuzendutako dirulaguntza zuzen hauek, Bediako Udalak martxan jarriko dituen neurrietariko lehena izango da izurrite honek pertsona eta kolektiboengan eragindako kalteak pairatzeko. Datozen hilabeteetan, egoera eta beharizanen jarraipen bat egingo da eta neurri berriak hartzeko aukera zabalik egongo da.







**COVID-19AREN HEDAPENA DELA ETA, OSTALARITZA ESTABLEZIMENDU, AUTONOMO, JARDUERA  
ETA ZERGA-EGOITZA BEDIAN DUTEN ENPRESA TXIKIAK ETA FAMILIAK, ALERTA-EGOERA  
DEKLARATZEAREN ONDIOZKOAK ARINTZEKO ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK  
ESKATZEKO BETE BEHARREZKO ZINPEKO AITORPEN EREDUA**

..... jauna/andrea .....

NAN zenbakia duena eta ..... helbideratua, bere izenean/edo

..... IFK zenbakia eta .....

helbide fiskala duen enpresaren ordezkari legez aurkezten denak bere erantzunkizunpean zera aitortzen du:

1. ....jarduera/sektoreari dagokion enpresaren titularra dela.
2. Aitortzaileak edo ordezkatzten duen enpresa Foru Ogasun, Ibarangeluko Udalarekin eta Gizarte Asegurantzarekin zorrik ez duela.
3. Aitortzaileak edo enpresak, Ibarangeluko Udalak onartutako COVID-19aren hedapena dela eta ostalaritza establezimendu, autónomo eta beste jarduera batzuetara zuzendutako dirulaguntzan arautzen dituzten oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela.
4. Aitortzaileak edo ordezkatzten duen enpresak onartu egiten duela egin beharrezko jakinerazpenak honako helbide elektroniko honetan egitea: .....
5. Dirulaguntzak arautzen dituen azaroak 17ko 38/2003 Legearen 13.artikuluari araututako eragozpenen barne ez dagoela.

Eskabide honi loturik edozer gauza argitzekotan ..... jauna/andrea  
rekin jarri ahal zarete kontaktuan, honako telefono zenbaki honetan: .....

Bedian, 2020ko ..... ..

Sinadura

